

AZALPEN-ARGIBIDEAK

I. EUROPAKO PARLAMENTURAKO HAUTESKUNDEETAN BOZKATZEKO BOTO-PROZEDURA BEREZIA OSATZEN DUTEN AGIRIAK

Europako Parlamenturako Hauteskundeetan bozkatzeko boto-prozedura berezi honek honako edukia du:

1. Azalpen-argibide hauek, braillez idatzita.
2. Europako Parlamenturako Hauteskundeetan bozkatzeko gutun-azal arautua, braille sistemarik gabe.
3. "Europako Parlamenturako Hauteskundeak" dioen gutun-azal handia, braillez eta tintaz idatzitakoa. Gutun-azal handi horren barruan honako agiriak daude:
 - Europako Parlamenturako Hauteskundeetan parte hartuko duten hautagai-zerrenda bakoitzeko gutun-azal txiki bana (orri laurden neurrikoa). Gutun-azal txiki horietako bakoitzak etiketa bat du, braillez eta tintaz, hautagai-zerrenda baten sigla eta izenarekin. Gutun-azalaren bakoitzaren barruan, boto-papera egongo da (estandarra, braille sistemarik gabe), gutun-azalaren kanpoko aldean adierazitako hautagai-zerrendari dagokiona.

II. BOTOA EMATEKO ARGIBIDEAK.

Boto-prozedura berezi hori osatzen duten agiriak zuri eman ondoren, agiri horiek pribatutasun osoz erabiltzeko, hauteskunde-mahaiko kideei laguntza eska diezaiekezu mahaitik ahalik eta hurbilen dagoen hauteslekuaren eremura joateko. Aipatutako agiriak hauteslekutik kanpora ere eraman ditzakezu eta geroago hautesleskura itzuli zure botoa emateko.

A. Botoa prestatu.

1. Gutun-azal handia ireki eta ikus-karaktereez eta braillez identifikatutako hautagai-zerrendetako izen desberdinak dituzten gutun-azalak atera.
2. Botoa eman nahi diozun hautagai-zerrendari dagokion etiketa (braillez inprimatuta) duen gutun-azala hautatu, gutun-azal hori ireki eta barruko boto-paper arautua atera.
3. Hautatutako boto-papera bozkatzeko gutun-azalean sartu: braillez eta tintaz inprimatutako etiketarik ez duen bakarra.

B. Bozketa.

Jarraian, Hauteskunde-mahaira joan eta mahaiko lehendakariari honako agiriren bat aurkeztu beharko diozu zure burua identifikatzeko:

- Nortasun Agiri Nazionala (NAN). Tramitatzen ari den NANaren frogagiriak ez du balio, hauteslearen argazkirik agertzen ez delako.
- Pasaporte (argazkiarekin).
- Europar Batasuneko hiritarrak bizileku-txartelarekin identifikatu ahal izango dira, baldin badaukate.

Agiri horiek iraungita egon arren onartu egingo dira, baina jatorrizkoak izan behar dira. Ez da fotokopiarik onartuko.

C. Gainerako agiriak.

Bozkatu ondoren, eskuratu dizkioten agiri guztiak biltzea ez zaio ahaztu behar boto-emaileari, emandako botoa isilpen gordetze aldera.